Aretxabaletako Udala

2025IKIB0002

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea Aretxabaletako zine proiekzio zerbitzuaren kontratua esleitzea da, baita Arkupe kultur etxean antolatzen diren ikus-entzunezko emanaldietarako lan teknikoa ere. Horrez gain, zinemako film eta ikus-entzunezko beste eduki batzuen hornidura ere kontratatuko da Zaraia aretorako, horniduraren berezko zerbitzu osagarriekin batera.

ZERBITZUAREN BETEKIZUNAK

1.- Emanaldiak Arkupe Kultur Etxeko Zaraia Aretoan izango dira, zinema-aretoa dagoen lekuan.

2.- Zerbitzua urtean 6 hilabetez eskaintzen da, urtarriletik apirilera bitartean, biak barne, eta azarotik eta abendura bitartean.
2025. urtean, ordea, azaroan hasiko da. Hortaz, 6 aste 2025an.
2026 eta 2027 urteetan, gehienez ere, 18 eta 17 astetan eskainiko da hurrenez hurren. Azkenik, 12 aste 2028ean.

3.-. Zerbitzua astean 4 egunez eman beharko da kontratuaren indarraldi osoan. Aste bakoitzeko ostiraletik astelehenera bitartean. Proiektatu beharreko filmak astero aldatu beharko dira, baldin eta ikusleen artean izandako arrakastagatik edo eskari handiagoa ikusita, denbora luzeagoan mantentzea erabakitzen ez bada behintzat.

Zaraia Aretoaren kudeaketaren esparruan, Aretxabaletako Udalak mota guztietako emanaldiak, ikuskizunak edo antzezpenak, musikalak, hitzaldiak, biltzarrak edo bestelako kultura-ekitaldiak antolatu ahal izango ditu, eta berak izango du lehentasuna aretoaren erabileran. Halakorik ezean, honako hau izango da zinema-saioen programazioa:

- Helduentzako zine komertziala: ostiral, larunbat, igande eta astelehenetan;
- Haurrentzako zinema: larunbat eta igandeetan;

Hau da, 2 film eta 6 proiekzio astero.

Horrez gain, ikasturtean zehar goizeko jarduerak egitea adostu ahal izango da.

Era berean, enpresa esleipenduna arduratuko da Zaraia Aretoan antolatzen diren gainerako ikus-entzunezkoen emanaldietako lan teknikoaz (Huhezinema, EUSPOT…), eta gehienez urtean 10 jardunaldi egingo direla kalkulatuko da.

4.- Erakutsiko diren filmen programazioa Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak egingo du, enpresa esleipendunak proposatuta. Kultura-teknikaria arduratuko da enpresa esleipenduna koordinatu eta harekin komunikatzeaz.

5.- Hauek dira programazioa egiteko kontuan hartu beharreko irizpideak:

- Gaur egungo filmak eta estreinaldi berriak;
- Mota guztietako generoak sartzea eta
- Euskaraz egindako edo euskarara bikoiztutako filmak, zinema-erakustaldien zirkuitu komertzialera iristen direnak.

6.- Sarrerak udalak markatuko ditu urteroko tasak ipintzerakoan.

ZERBITZUAREN BEREZITASUNAK

Enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

Aretxabaletako Udala

1.- Arkupe Kultur Etxeko Zaraia Aretoan zine digitaleko proiekzio-ekipoa zaintzea

Zinema-aretoak bi pantaila ditu, bata agertokiaren aurrealde osoa hartzen duena, eta bestea txikiagoa jende gutxiago biltzen duten ekitaldietarako, biak mekanizatuak. Halaber, aretoan soinu- eta argiztapen-ekipoak daude.

2.- Filmen alokairu gastuak bere gain hartzea eta baita SGAEk proiekzio zinematografikoengatik dituen eskubideen ondoriozko gastuak ere. Udalaren ekimenez sortzen diren beste kultura-emanaldi batzuen kontratuak (antzerkia, musika, emanaldiak oro har) Udalaren kontura izango dira.

3.- Zinemako filmen kopiak formatu digitalean edukitzea. Kopia horiek erakusteko lizentzia izango dute (dokumentu hori edozein ministerio-ikuskapenen eskura egongo da, proiekzio guztietan), eta behar bezala legeztatuta jabetza intelektualaren, industrialaren, patenteen, marken eta abarren eskubideei dagokienez.

Salbuespen gisa, arrazoi teknikoengatik ezinezkoa bada digitalean proiektatzea eta banatzaileak horretarako aukera ematen badu, DVD edo Blue Ray bidez aurkeztu ahal izango da, edo aretoko proiekzio-elementuei egokitzen zaien egungo edo etorkizuneko beste edozein formatuan.

4.- Zinema-erakusle gisa legez edo erregelamenduz ezarritako betebeharrak betetzea, hala nola pantaila-kuotei, leihatila-kontrolari, arauzko billeteak igortzeari eta abarri buruzkoak.

Halaber, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu filmaren alokairu-gastuak, baita osagarriak ere, hala nola kartelak (unitate bat gutxienez), afixak, aseguruak, garraioa (saioa egin baino 24 ordu lehenago gutxienez jasotakoa) eta eratorritako beste edozein gastu.

5.- Zinemako programazioa betetzeko, mota guztietako ikusleei zuzendutako hainbat film komertzialen eta ez-komertzialen tituluak proposatzea,. Behin betiko proposamena Kultura Sailak egingo du, eta Kultura teknikariaren bitartez enpresa esleipendunarekin komunikatu eta koordinatuko da.

Filmen izenburuak, afixak, JPG formatuko kartelak eta sinopsiak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, proiektatu aurreko hilaren 15a baino lehen, bi helbide elektroniko hauetan: kultura@aretxabaleta.eus eta udala@aretxabaleta.eus

6.-. Sarreren salmenta kudeatzea arauzko txartelak igorriz, eta aretorako sarbidea kontrolatzea.

Sarrerak erosteko pasabide digital bat eskainiko zaie ikusleei.

7.- Erabiltzaile gisa dagozkion betekizunak eta obligazioak (hala nola, gizalegeari eta bizikidetzari buruzko arauak errespetatzea; aretoko ondasun, instalazio eta zerbitzu guztiak zaintzea; gainerako erabiltzaileekiko errespetua eta langileei zor zaien begirunea izatea, eta ezarritako prezio publikoak ordaintzea) betetzen dituen pertsona orori zerbitzua erabiltzen uztea.

8.- Erakusketa-txostenak betetzea eta Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari (ICAAri) helaraztea, saldutako sarrera kopurua eta saio bakoitzean bildutako dirua adieraziz.

Saldutako sarrerekin jasotako dirua udalentzat izango da.

9.- Astero, eta beranduenez proiekzioen hurrengo asteazkenean, Aretxabaletako Udalarentzako txosten bat egitea, proiekzio kopurua, proiekzioetan izandako intzidentziak, horien kausa edo zergatia, saio bakoitzera bertaratutako publikoa eta interesgarritzat jo daitezkeen bestelako intzidentziak zehaztuz. Txosten hori lehenago aipatutako mezu elektronikoen bidez helaraziko zaio Udalari: kultura@aretxabaleta.eus eta udala@aretxabaleta.eus.

10.- Kontratu honen xede den Zaraia Aretoan programatzen diren saioak behar bezala eta garaiz garatu, gauzatu eta funtzionatzeko behar diren teknikariak jartzea. Gutxienez honako hauek izan beharko ditu:

- Leihatilako eta aretoko langileak.
- Proiekzio-kabinako langileak.

Leihatilako eta aretoko langileek eta proiekzio-kabinako langileek aretoa irekita dagoen ordutegi osoan bete beharko dituzte beren eginkizunak, bai eta ireki aurretik eta itxi ondoren zerbitzua antolatzeko eta prestatzeko, materialak biltzeko, diru-bilketako kutxa ixteko eta abarretarako aurreikusitako denbora-tarte

batean ere, saioen ordutegi-taularen arabera.

Enpresa esleipenduneko langileek ez dute izango inolako lan edo kontratuzko harremanik, ez bestelako izaeradunik, Aretxabaletako Udalarekin; enpresak argi eta garbi eman beharko die horren berri langileei, eta berariaz jaso beharko du egiten diren kontratuetan.

11.- Arkupe kultur etxearen funtzionamendu onari lotutako zeregin guzti-guztiak gauzatzea:

- Zaraia Aretoa ireki eta itxi.
- Aretoko argiztapenaz arduratzea eta argi guztiak piztu eta itzaltzea.
- Aretoa eta haren instalazioak zaintzea eta oinarrizko mantentze-lanak egitea.

Udalari dagokio:

a) Eraikinaren eta instalazioen ohiko funtzionamenduaren ondoriozko gastuak; mantentze-lan arruntak; eraikinaren eta instalazioen mantentze-lanak, horien hondatzeak espazioaren ohiko funtzionamenduaren ondoriozkoak ez direla egiaztatzen denean (ekintza bandalikoak, pintadak, etab.); egiturazko konponketak, eta ekipamenduaren, altzarien eta tresnen zuzkidura hobetzeko inbertsioak, Udalak bere aurrekontuan horretarako onartutako partiden arabera.

b) Ondorengo gastuak ordaintzea: ur-, elektrizitate- eta gas-kontsumoak; garbiketa orokorra; eta igogailuaren, intrusioaren eta suteen aurkako sistemaren, klimatizazio-sistemaren eta kontrol-sistemaren mantentze-lanetatik eratorritakoak.

12.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK:

- **Hizkuntza gaitasuna**: Kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, herritarrekin edo hirugarrenekin harremana izango duten neurrian,
  - leihatila eta aretoko zein kabinako langile guztiek Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailaren pareko ahozko gaitasuna egiaztatu beharko dute.

  Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak gaitasun hori, eta horretarako bi bide erabili ahal izango ditu:
  1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea.
  2. Udalak erabakitako froga egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

  Era berean, enpresa kontratatu eta geroago, egiteko horietarako pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

- **Hizkuntz erabilera herritarrekin eta hirugarrenekin**: Udalaren hizkuntza-irizpideei jarraituz, honela jokatuko da:
  - Aurrez aurreko eta telefono bidezko harremanetan, lehen hitza euskaraz egingo da, baina kontuan izanda herritarrak edozein unetan erabil dezakeela hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
  - Errotulu, ohar eta hitz gutxitako komunikazio orokorrik jarri behar izanez gero, mezua euskaraz idatziko da, piktogramaz lagunduta. Piktogramak erabilita ere mezua behar bezain argia izango ez balitz, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez
  - Modu berean, film laburpenak, kartelak, …euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, betiere, bertsio egokiak eta zuzenak eginez bi hizkuntzetan, eta euskarazkoari lehentasuna emanez.
  - Haurrei zuzendutako filmen %25 euskaraz izan beharko da, hau da, hilean behin, gutxienez, haurrentzako film bat euskaraz proiektatuko da.

- **Hizkuntzen erabilera Udalarekin**: enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, ...) euskaraz izango dira.

13.- BERDINTASUN BETEBEHARRAK:

- 3/2007 Lege Organikoa jarraiki berdintasun plana izan beharko du enpresa esleipendunak, 50 langiletik gora edukiz gero. Gainera, enpresa esleipendunak sustatu behar ditu sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak, eta prozedura espezifikoak ezarri behar ditu jazarpena prebenitzeko eta sexu-jazarpena jasan dutenek egin ditzaketen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

- Esleipenaren ondoren eta kontratua formalizatu aurretik enpresa esleipendunak, 3/2007 Lege Organikoaren 45.artikuluak ezartzen duen betebeharraren pean baldin badago, berdintasun-planaren kopia bat aurkeztu beharko du, eta bertan jasoko da 3/2007 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzak eta edukiak.

- Kontratua gauzatzean emakumeen eta gizonen artean ordainsari-diskriminaziorik ez dagoela egiaztatzeko eta errazteko, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio plantilla osoaren ordainsari-erregistro bat dagoela, Langileen Estatutuaren 28.2 artikuluan eta Emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistaren aurkako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, enpresa adjudikaziodunak ez du hizkuntza eta irudi sexistarik erabiliko hura gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian. Era berean, emakumeen edo LGTBI+ kolektiboaren diskriminazioa iradokitzen duten estereotipoak edo irudiak saihestu beharko ditu, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rolen eta -identitateen aniztasunaren balioak sustatu beharko ditu.

Aretxabaletako
Udala

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

OBJETO DEL CONTRATO

Son objeto del presente Pliego la adjudicación del contrato del servicio de proyecciones cinematográficas en Aretxabaleta, así como el trabajo técnico para las proyecciones audiovisuales que se organicen en la casa de cultura Arkupe. Además, el suministro de películas de cine y otros contenidos audiovisuales para la sala Zaraia, y los servicios complementarios inherentes al suministro.

REQUISITOS DEL SERVICIO

1.- Las proyecciones tendrán lugar en Zaraia aretoa de Arkupe Kultur Etxea, donde se ubica la sala de exhibición cinematográfica.

2.- El servicio se ofrece durante 6 meses al año, que se corresponden con los meses comprendidos entre enero y abril, ambos incluidos, y noviembre y diciembre. En 2025, sse ofrecerá a partir de noviembre. Por tanto, se ofrecerá en 6 semanas en 2025 y en 17 y 18 semanas los siguientes dos años, 2026 y 2027 respectivamente. Finalmente, 15 semanas en 2028.

3.-. El servicio deberá prestarse 4 días a la semana todo el periodo de vigencia del contrato. De viernes a lunes de cada semana. Las películas a proyectar deberán ir variando semanalmente, salvo que concurra interés por su continuidad a la vista del éxito de público generado o por su mayor demanda.

En el ámbito de la gestión de Zaraia Aretoa el Ayuntamiento de Aretxabaleta podrá organizar todo tipo de actuaciones, espectáculos o representaciones teatrales, musicales, conferencias, congresos o cualquier otro evento de índole cultural, teniendo prioridad en el uso de la sala. En su defecto, la programación de las diferentes sesiones cinematográficas será la siguiente:

- Cine comercial para adultos: viernes, sábados, domingos y lunes,
- Cine infantil: sábados y domingos

Es decir, 2 películas y 6 proyecciones semanalmente.

Adicionalmente, se podrá acordar la realización de actividades de carácter matinal durante el curso escolar.

Así mismo, la empresa adjudicataria se hará cargo del trabajo técnico en aquellas otras proyecciones audiovisuales que se organicen en Zaraia aretoa (HUHEZINEMA, EUSPOT…), estimándose en unas 10 jornadas al año como máximo.

4.- La programación de las películas objeto de exhibición será realizada por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Aretxabaleta a propuesta de la empresa adjudicataria. La Técnica de Cultura será la responsable de coordinar y comunicar con la empresa adjudicataria.

5.- Los criterios a tener en cuenta para realizar la programación serán:

- Películas de actualidad y estrenos recientes;
- Incluir todo tipo de géneros
- Películas realizadas o dobladas a euskera que lleguen al circuito comercial de exhibición de cine.

6.- El precio de las entradas lo establecerá anualmente en ayuntamiento mediante la aprobación de las tasas.

PARTICULARIDADES DEL SERVICIO

La empresa adjudicataria deberá:

Aretxabaletako
Udala

1.- Cuidar del equipo de proyección de cine digital en Zaraia aretoa de Arkupe Kultur Etxea durante todo el tiempo que esté vigente este contrato para poder realizar las proyecciones.

La sala de cine, dispone de dos pantallas, una que abarca todo el frontal del escenario, y otra de menor tamaño para eventos de menor afluencia de público, siendo las dos mecanizadas. Así mismo, cuenta con equipos de sonido e iluminación integrados en la Sala.

2.- Asumir los gastos derivados de alquiler de películas y los derechos de la SGAE por proyecciones cinematográficas. No serán de su cuenta los contratos de otras actuaciones culturales (teatro, música, actuaciones en general…) que surjan a iniciativa municipal, siendo de cuenta del Ayuntamiento.

3.- Disponer de las copias de las películas de cine en formato digital. Estas copias tendrán su correspondiente licencia de exhibición (documento que estará a disposición de cualquier posible inspección ministerial, en todas las proyecciones), y debidamente legalizada respecto a los derechos de propiedad intelectual, industrial, patentes, marcas, etc.

Excepcionalmente, si por razones técnicas no fuera posible la proyección en digital y siempre que la distribuidora así lo permita, se podrá presentar en DVD o Blue.Ray, o cualquier otro formato actual o futuro, que se adecue a los elementos de exhibición de la sala.

4.- Dar cumplimiento a las obligaciones que legal o reglamentariamente establecidas le corresponda en su calidad de exhibidor cinematográfico, tales como las relativas a cuotas de pantalla, control de taquilla, expedición de billetes reglamentarios, etc.

La empresa adjudicataria asume, así mismo, los gastos de alquiler de la película, incluidos los complementarios como carteles (1 unidad mínimo), afiches, seguros, transporte (recogida con al menos 24 horas de antelación a la distribución) y cualquier otro gasto derivado.

5.- Proponer los títulos disponibles de diferentes estilos de películas tanto comerciales como no comerciales destinados a todo tipo de público para cubrir la programación de cine. La programación definitiva será realizada por el Departamento de Cultura, quien a través de la Técnica de Cultura comunicará y coordinará con la empresa adjudicataria.

Los títulos, afiches, carteles en formato JPG y las sinopsis de las películas deberán presentarse, en euskera y castellano, antes del día 15 del mes anterior a su proyección en estas dos direcciones de correo electrónico: kultura@aretxabaleta.eus y udala@aretxabaleta.eus

6.-. Gestionar la venta de localidades mediante la emisión de los billetes reglamentarios y controlar el acceso a la sala.

Se ofrecerá a los espectadores una pasarela digital para la adquisición de las entradas.

7.- Permitir el uso del servicio a toda persona que cumpla con los requisitos y obligaciones que le corresponden como usuario, tales como el respeto a las normas de civismo y convivencia, así como el cuidado de todos los bienes, instalaciones y servicios de la sala, el respeto hacia el resto de usuarios y la deferencia debida al personal trabajador, y el abono de los precios públicos fijados. El adjudicatario podrá expulsar a aquellos usuarios que no cumpliendo con lo antes establecido causen daños a las instalaciones, muestren comportamientos indecorosos o conductas contrarias a la corrección y buena educación.

8.- Cumplimentar y hacer llegar al ICAA (Instituto de Cinematografía y Artes Audiovisuales) informes de exhibición, declarar el número de entradas vendidas y la recaudación obtenida en cada sesión.

La recaudación de taquilla será para el ayuntamiento.

9.- Elaborar semanalmente, y como muy tarde, el miércoles siguiente a las proyecciones, un informe para el Ayuntamiento de Aretxabaleta detallando el número total de proyecciones, las incidencias que hubieran afectado a las mismas, su causa o motivo, el público asistente a cada una de las sesiones, así como aquellas otras incidencias que pudieran considerarse de interés. Este informe se hará llegar al Ayuntamiento mediante los correos electrónicos antes citados: kultura@aretxabaleta.eus y udala@aretxabaleta.eus.

10.- Aportar el personal técnico necesario para el correcto y puntual desarrollo, ejecución y funcionamiento de las sesiones que se programen en Zaraia aretoa, objeto del presente contrato. Deberá contar con al menos:

-Personal de taquilla y sala.
-Personal de cabina de proyección.

El personal de taquilla y sala y de cabina de proyección deberá desempeñar sus funciones durante todo el horario de apertura de la Sala, así como durante una previsión temporal antes de la apertura y después del cierre para la organización y preparación del servicio y para la recogida de materiales, cierre de caja, etc., conforme al cuadro de horarios de las sesiones.

El personal de la adjudicataria en ningún caso podrá considerarse con relación laboral, contractual o de naturaleza alguna con respecto al Ayuntamiento de Aretxabaleta, debiendo dicha empresa tener claramente informado a su personal de dicho extremo, haciendo constar en los contratos que se realicen al efecto expresamente esta circunstancia.

11.- Ejecutar todas y cada una de las tareas inherentes al buen funcionamiento de la casa de cultura Arkupe:

- Abrir y cerrar el Salón Zaraia.
- Encender y apagar todas las luces y luminarias del salón.
- Cuidado y mantenimiento básico del salón y sus instalaciones.

Corresponde al Ayuntamiento:

a) Correr con los gastos derivados del funcionamiento ordinario del edificio e instalaciones, mantenimiento ordinario, el mantenimiento del edificio e instalaciones cuyo deterioro se demuestre no es imputable al funcionamiento ordinario del espacio (actos vandálicos, pintadas, etc.), las reparaciones estructurales y las inversiones de mejora de la dotación de equipamiento, mobiliario y enseres de acuerdo a las partidas aprobadas a tal fin por el Ayuntamiento en su presupuesto.

b) Correr con los gastos de consumos de agua, electricidad y gas, limpieza general y los derivados de los contratos de mantenimiento de ascensor, sistema anti-intrusión y antiincendios, sistema de climatización y sistema de control.

12.- OBLIGACIONES LINGÜÍSTICAS:

- **Competencia lingüística**: Las personas empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante; por ello, teniendo en cuenta que en el desempeño de sus funciones tendrán relación directa con la ciudadanía o con terceros,
    - todos los trabajadores de taquilla y sala, así como los de la cabina de proyección, deberán acreditar un nivel hablado equivalente al C1del Marco Europeo de Referencia.

  La empresa deberá verificar, previa a la adjudicación del contrato, que las personas encargadas de prestar esos servicios poseen la competencia lingüística precisa. Ello podrá hacerse de la siguiente manera:
    1. Presentando los documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen con la competencia lingüística exigida, o
    2. Tomando parte en las pruebas que con ese objeto realice la administración (la acreditación que se obtenga en dichas pruebas carecerá de valor en cualquier otra instancia)

  Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, se incorporen nuevas personas a prestar esos servicios, deberán acreditar la competencia lingüística correspondiente.

- **Uso de las lenguas con la ciudadanía y con terceros**: atendiendo a los criterios lingüísticos del ayuntamiento, se actuará de la siguiente manera:

- Tanto presencialmente como por teléfono, la comunicación se iniciará siempre en euskera, pero teniendo en cuenta que la ciudadanía tiene derecho a elegir en qué idioma quiere continuar.
- Si hubiera que colocar rótulos, avisos o comunicaciones breves, el mensaje se redactará en euskera, acompañado de pictogramas. Si de esa manera el mensaje no fuera suficientemente claro, se redactará en euskera y castellano, dando prioridad al euskera
- De la misma manera, los carteles, sinopsis de las películas… se realizarán en euskera y castellano, siempre con versiones adecuadas y correctas en ambas lenguas, y dando prioridad a la versión en euskera.
- El 25% de las películas dirigidas a niños y niñas deberán ser en euskara; es decir, se proyectará como mínimo una película infantil al mes en esa lengua.

- **Uso de las lenguas en las relaciones con el Ayuntamiento**: Las relaciones tanto escritas como verbales (contratos, facturas, informes, reuniones...) de la empresa con el Ayuntamiento serán en euskera.

13.- OBLIGACIONES DE IGUALDAD:

- La empresa adjudicataria, en el caso de tener más de 50 personas trabajadoras, deberá disponer de un **plan de igualdad** de acuerdo con la Ley Orgánica 3/2007. Además, la empresa adjudicataria debe promover condiciones de trabajo que eviten el acoso sexual y el acoso por razón de sexo y debe establecer procedimientos específicos para prevenir el acoso y canalizar las denuncias o reclamaciones que puedan formular las personas que hayan sufrido acoso sexual.

  Con posterioridad a la adjudicación y con carácter previo a la formalización del contrato, la empresa adjudicataria, siempre que esté sujeta a la obligación establecida en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3/2007, deberá presentar una copia del plan de igualdad en la que se recojan los requisitos y contenidos que establece la Ley Orgánica 3/2007.

- Con el fin de verificar y facilitar la **no discriminación retributiva** entre mujeres y hombres en la ejecución del contrato, la empresa adjudicataria deberá comunicar a la persona responsable del contrato la existencia de un registro retributivo de toda la plantilla, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28.2 del Estatuto de los Trabajadores y en los artículos 5 y 6 del Real Decreto 902/2020, de 13 de octubre, para la igualdad retributiva de mujeres y hombres.

- En virtud del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y contra la Violencia Machista, la empresa adjudicataria deberá hacer **un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes** en toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere en su ejecución. Asimismo, deberá evitar estereotipos o imágenes que sugieran la discriminación de las mujeres o del colectivo LGTBI+ y promover valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y diversidad de roles e identidades de género.